



Usurbilgo Udala



**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2014KO ABENDUAREN 18AN
GOIZEKO 08:30EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Mertxe Aizpurua Arzallus.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Nagore Sarasola Otermin.

Ezin-etorria adierazi dute: Jose Maria Rivadeneyra Siciliak eta Josu Portu Alzagak.

1.- 2014/11/25EKO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.

Batzarkideek, 2014ko azaroaren 25eko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- BIZKARRE KALEA 1-8 ETXEETAKO JABEKIDEEN ORDEZKARITZAN
DIHARDUEN ADOLFO GARCIA EZPONDA JAUNAK ESKATU BEZALA,
BIZKARREKO GARAJE SOTOAREN XAFLA IRAGAZGAITZA KONPONTZEKO
OBREI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2013-0199

BIZKARRE KALEA 1 — 8 ETXEETAKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen ADOLFO GARCIA EZPONDA jaunak, Bizkarreko garaje sotoaren xafla iragazgaitza konpontzeko obren lehen erabilera baimena eskatu du.

AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak 2013ko uztailaren 26an, BIZKARRE KALEA 1 — 8 ETXEETAKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen ADOLFO GARCIA EZPONDA jaunari, Bizkarreko garajeetako inpermeabilizazioa konpontzeko udal baimena ematea erabaki zuen.

OBRA AMAIERAKO ZIURTAGIRIA

2014ko apirilaren 16an, BIZKARRE KALEA 1 — 8 ETXEETAKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen ADOLFO GARCIA EZPONDA jaunak, Obra Amaierako ziurtagiria aurkeztu zuen obren lehen erabilera baimena eskatuz.

TXOSTEN TEKNIKOAK

Udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, dagokion ikuskapen-bisitaldia burutu ostean, 2014ko ekainaren 20an, dagokion txostena eman zuen. Hitzez



Usurbilgo Udala



hitz honela dio txostenak:

ZERBITZU ETA MANTENUA SALAREN IKUSKPENA

ESKATZAILEA: Hirigintza Saila
PROIEKTUA: Garajeen iragazgaizpenaren konponketak
SUSTATZAILEA: Garajeetako jabekideak
KOKAPENA: Bizkarra kalea 1 – 3 – Kale Nagusia 1-8 (Bizkarra plaza)
ESP. ZENB: HZ.04/2013-0199

AURREKARIAK

Bizkarra .kaleko "Garajeen iragazgaizpenaren konponketa" obrako Bizkarra plazako Zerbitzuak eta Mantenu sailari dagozkion atalen ikuskapena eskatu zuen Hirigintza sailak.2014ko maiatzaren 21ean txostena idatzi zen, baranda batzuk ez zeudela behar bezala jarrita eta mugitu egiten zirela esaneaz.

TXOSTENA

Jorge Lizarribar obra zuzendariak konponketak burutu direla adierazi ondoren, berriro ikuskatu lira Bizkarra plazako barandak, eta ondo jarrita daudela ikusi dugu.

Zerbitzuak eta Mantenua sailari dagozkien ataletan ageriko kalterik ez da agertzen.

Bizkarra plazako urbanizazioaren ikuskapena			Zuzendu beharrak
1.- Saneamendua: sifoi-hustubideak	X	ONDO	
		GAIZKI	
2.- Herriko argiak: farolak eta instalazio elektrikoa	X	ONDO	
		GAIZKI	
3.- Zoladura (baldosak-eskailerak)	X	ONDO	
		GAIZKI	
4.- Eserlekuak	X	ONDO	
		GAIZKI	
5.- Barandak	X	ONDO	
		GAIZKI	

2014ko ekainaren 20an
 Zerbitzu eta Mantenua saileko burua
 Felix Aizpurua Arzallus

Udal arkitektoak, Joxean Erasun Arancón jaunak, espedientea, eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2014ko Abenduaren 17an eman du bere txostena. Hitzez hitz honela dio bere txostenak:



Usurbilgo Udala



BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate andreari

OBRA HANDIAK

BIZKARREKO GARAJE SOTOAREN XAFLA IRAGAZGAITZA KONPONTZEKO OBREN
AMAIERARI TXOSTENA

KOKAPENA: Bizkarra kalea 1-8, Usurbil

IDATZIAREN DATA; 2014ko uztailaren 30a.

ESKATZAILEA; Adolfo García Ezponda Administrazailea, Bizkarra kalea 1-8 jabekide izenean.

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2013-0199

PEM (Obra amaiera): 208.675,22 €

AURREKARIAK

- 1) 2013ko apirilaren 30ean Adolfo García Ezponda jaunak, Bizkarra kalea 1-8 garajeetako xafla iragazgaitza konpontzeko obra baimena eskatu zuen bertako jabekideen izenean (ikus aurrekariak EE2014_04_48 txostenean).
- 2) 2013ko uztailaren 26an Tokiko Gobernu Batzarrak baimena ematea erabaki zuen, besteak beste, honako baldintzapean:

- *Behin obrak amaituta ostean, lehen erabilera jaso aurretik, urbanizazioaren harrera akta izenpetu beharko da, besteren artean ondoko baldintzak jasoz:*

“Garaje gainetan aurkitzen den plazari dagokionez, honako baldintzak finkatzea:

1. *Soportale edo lagatutako gainontzeko elementuen espazioa, jabego pribatuko espazioa da baina azaleran erabilpen publikoko menpekotzearekin, azpitan beste erabilpeneko lokalak eta garajeak bait daude eraikita.*
2. *Usurbilgo Udalari dagokio elementu apaingarrien kontserbazioa eta mantenua, baita ere ekipamendu eta haltzariena eta azalerako erremateak.*
3. *Aipatutako espazioetako eraikuntzazko edo estrukturazko elementuez Udalak ez du inongo ardura eta obligaziorik, beste erabilerako garaje eta lokaletako finkaren zatia edo estalkia osatzen dutenez, ondorioz, kontserbazio edo mantenimendu egokirako beharrezkoak diren iharduketaz ere ez da arduratuko.”*

- 4) 2014ko uztailaren 29an udal arkitektoak bertaratzea egin, eta uztailaren 30ean egindako txostenean (EE2014_04_48) honakoak jaso zituen, besteak beste:

TXOSTENA



Usurbilgo Udala



Adolfo García Ezponda jaunak, Bizkarre kaleko 1-8 jabekideen izenean, Bizkarreko garaje sotoaren xafla iragazgaitza konpontzeko proiektuaren obra amaierako dokumentazioa aurkeztu du; lehen erabilera baimena eskatuz. Aurkez du den dokumentazioa da: obra amaierako ziurtagiria, obra amaierako likidazioa, obra amaierako argazkiak eta obra amaierako planuak, guztiak teknikari gaituak izenpetuak (arkitektoa) eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsiak (COAVN 2014 04-11). Obra amaierako aurrekontu osoa; 208.675,22 eurotakoa da (BEZ KANPO). Dokumentazioa aztertu ostean, beti ere, udal teknikari honek aurreko txostenean jarritako baldintzen betetzera udal baimenean eskatutakoak aztertzer mugatuz, honakoa esan daiteke:

IRISGARRITASUN ARAUDIAREN BETETZEA:

A) Eskailerak: 2013ko azaroarne 20an behean izenpetzen duen teknikariak idatzitako txostenean esaten zen:

“Eskailerek irisgarritasun baldintzak bete beharko dituzte (maila eta kontramaila neurriak, maila kopurua, e.a.) eta beraz, ez da onargarria egungo egoeran, irisgarritasuna bermatu gabe uztea. Dagozkion egokitzapenak egin beharko dira.”

Berlaratzean ikusi da ez dela bete. Ezinbestean 68/2000 Dekretuaren 3.7. artikulua bete beharko da.

B) Eskubarandak:

Alde babetik bertaratzean ikusi da eskuhartze eremuz kanpo ere ezarri direla eskubarandak eta bestetik, obra amaierako planuan eskubaranda dagoela jartzen duen lekuren batean ez da ezarri.

Horrekin batera, emandako obra baimenean esaten zen:

“(…) eskubarandak ezarri beharko dira 68/2000 Dekretuaren II. Eranskineko 3.10 artikuluen arabera” eta “Bai proiektuan baita obren egikaritzan ere indarrean den araudia bete beharko da; besteren artean; EKT, 68/2000 Dekretua, 20/97 Irisgarritasun Legea, Usurbilgo Arau Subsidiarioak, e.a.”.

Aldiz ikusi da, eskubarandek ez dutela bere osotasunean aipatutakoa betetzen izan ere, ez dute behar adinako luzera eta ezta araudiak ezarritako akaberarik ere eta esan bezala, ez da leku guztietan jarri, besteren artean.

Araudia bete beharko da.

OBREN AMAIERA: Egindako ikuskapena eta obra zuzendaritzak aurkeztutako argazkiak eta ziurtagiria ikusita esan daiteke obrak amaituta dagoela. Horrekin batera, Udalari ohartarazten zaio eremua erabilera dagoela.

ONDORIOAK

Aipatutako baldintzak bete beharko dira, udal baimenean ezarritakoak izanik.

Behean izenpetzen duenak ikuskapena egin, eta, ikusirik aipatutako baldintzak bete ez direla, 2014ko azaroaren 13an interesdunari jakinarazten zaio baldintzak bete egin beharko dituela



Usurbilgo Udala



edo, hori ezinezkoa balitz, gutxienez baldintzak ez betetzeko justifikazioa aurkeztu beharko duela.

2104ko azaroaren 19an interesdunak eskatutako justifikazioa aurketzu du.

Espediente erlazionatuak:

2103ko abenduaren 18an hirigintza hitzarmena sinatu zuten Mertxe Aizpurua Arzallus andreak (Usurbilgo Udaleko Alkateak) eta Jose Ramon Zubiaur jaunak (jabekideen izenean) Bizkarreko Plaza konpontzeari begira, Bizkarrako 1tik 8rako garaje eta trastelekuen jabekideei dirulaguntza zuzena emateko.

Bi alderdiak akordio batera iritsi, eta hitzarmenaren bitartez diru-laguntza arautuko zuten baldintzak finkatu zituzten hitzarmen hori sinatuz, hainbat klausula ezarriz.

TXOSTENA

Eskatzaileak aurkeztutako idazkiak dioenez, Bizkarre plazako zolatua aldatzeko obraren helburua horren azpian (eta garajeen sotoaren gainean) dagoen xafla iragazgaitza konpontzea izan da; xedea ez da inola ere plazaren eraberritzea izan.

68/2000 Dekretuaren V. Eranskinak (Eraberritze-, zabalkuntza- edo aldaketa-obrak urbanizazio eta eraikinetan) honakoa dio:

1. artikulua.– Xedea.

1.1.– **Eranskin honen xedea, dauden urbanizazio, bide publiko eta eraikinen eraberritze-, zabalkuntza- edo aldaketa-obretan Irisgarritasuna Sustatzen duen Legearen aplikazioa arautzea da.**

1.2.– **Eraikinak eta/edo beren instalazioak, urbanizazioak eta erabilera publikoko bide eta espazioak mantendu eta kontserbatzeko obrak ez dira eraberritze-, zabalkuntza- edo aldaketa-obratzat hartuko, eraberritserik edo aldaketarik ez dakartenean bederen.**

Eraikina eta urbanizazioa mantendu eta kontserbatzeko beharrezkoa den obra izanik, ez dakar eraberritserik edo aldaketarik; hortaz, ez da aplikagarria aipatutako dekretua.

Dekretua aplikatuta ere, ulertu behar da ezinezkoa dela osorik betetzea; plazaren egituraren ezaugarriak kontuan izanik, eta ahaztu gabe urbanizazioa ez dela berria, gehienez ere 68/2000 Dekretuaren V. Eranskinak ezartzen dituen *erabilgarritasun-irizpideak* soilik izan litezke aplikagarriak.

Plazaren ezaugarri estrukturalak kontuan izanik, irisgarritasunaren legea betetzeari begira, mailarik baxuenean dagoen solairuak, besteen sestra berean jartzeko, betelana jasan beharko luke, eta horrek, izugarritzko gaitzera ekartzeaz gain, neurritz kanpoko gastua ekarriko luke. Gainontzean, esan beharra dago irisgarritasun baldintzak neurri handi batean aplikatu direla.

ONDORIOAK

Ikusirik plaza erabilgarritzat har daitekeela, alegia, irisgarritasuna sustatzen duen legea garatzen duen araudian zehaztutako parametroei guztiz egokitu gabe ere, mugikortasun urria duten pertsonen autonomiaz erabiltzea eragozten ez diela, proposatzen dut aurkeztutako dokumentazioa ontzat ematea eta, araudiak (68/2000 Dekretuak) agindu bezala, espedientea Irisgarritasunerako Euskal Kontseiluari helaraztea, jakinaren gainean egon dadin.

Bestalde, obra baimenean ezarritako baldintzak eta Udalak sinatutako hitzarmena kontuan izanik, honako hauek proposatzen ditut:

- Aukeztutako karga probaren ziurtagiriari onespina ematea.
- Urbanizazioaren harrera akta izenpetzea, goian eta hitzarmenean aipatutako baldintzak jasoz:



Usurbilgo Udala



“Garaje gainetan aurkitzen den plazari dagokionez, honako baldintzak finkatzea:

4. Soportale edo lagatutako gainontzeko elementuen espazioa, jabego pribatuko espazioa da baina azalera erabilpen publikoko menpekotzearekin, azpian beste erabilpeneko lokalak eta garajeak bait daude eraikita.

5. Usurbilgo Udalarik dagokio elementu apaingarrien kontserbazioa eta mantenua, baita ere ekipamendu eta haltzariena eta azalera erremateak.

6. Aipatutako espazioetako eraikuntzako edo estrukturalako elementuez Udalak ez du inongo ardurarik eta obligaziorik, beste erabilera garaje eta lokalak finkaren zatia edo estalkia osatzen dutenez, ondorioz, kontserbazio edo mantentzen egokirako beharrezkoak diren iharduketaz ere ez da arduratuko.”

- Behin akta sinatuta, eta obra amaierako ziurtagiriaren bitartez justifikatutako partiden arabera (hitzarmenean jasotako klausulei jarraiki), dirulaguntzaren bigarren zatia ordaintzea: 54.620,60 €

Usurbilen, 2014ko abenduaren 17an.

UDAL ARKITEKTOA

Izta.: Joxean Erasun Arancón

Gauzak horrela, udal teknikarien txostenak irakurri ondoren, eta hitzarmenean aipatutako baldintzak jasoz Urbanizazioaren harrera akta izenpetu denez, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: BIZKARRE KALEA 1 — 8 ETXEETAKO JABEKIDEEN ordezkaritzan diharduen ADOLFO GARCIA EZPONDA jaunak eskatu bezala, Bizkarreko garaje sotoaren xfla iragazgaitza konpontzeko obrei dagokionez :

- Aurkeztutako karga probaren ziurtagiriari onespina ematea
- Urbanizazioaren harrera akta izenpetzea, goian eta hitzarmenean aipatutako baldintzak jasoz:
- Lehen erabilera baimena ematea Udal Teknikariek egindako txostenetan oinarrituz honako baldintzak finkatuz:

“Garaje gainetan aurkitzen den plazari dagokionez, honako baldintzak finkatzea:

- Soportale edo lagatutako gainontzeko elementuen espazioa, jabego pribatuko espazioa da baina azalera erabilpen publikoko menpekotzearekin, azpian beste erabilpeneko lokalak eta garajeak bait daude eraikita.



Usurbilgo Udala



- Usurbilgo Udalari dagokio elementu apaingarrien kontserbazioa eta mantenua, baita ere ekipamendu eta haltzariena eta azalerako erremateak.
- Aipatutako espazioetako eraikuntzazko edo estrukturazko elementuez Udalak ez du inongo ardura eta obligaziorik, beste erabilerako garaje eta lokaletako finkaren zatia edo estalkia osatzen dutenez, ondorioz, kontserbazio edo mantenimendu egokirako beharrezkoak diren iharduketaz ere ez da arduratuko.”

Behin akta sinatuta, eta obra amaierako ziurtagiriaren bitartez justifikatutako partiden arabera (hitzarmenean jasotako klausulei jarraiki), dirulaguntzaren bigarren zatia ordaintzea: 54.620,60 €.

BIGARRENA: Aurkeztutako dokumentazioa ontzat ematea eta erabaki hau interesatuari, Irisgarritasunerako Euskal Kontseiluari, eta Kontuhartzaileari ematea.

3.- LASER KEN, S.A. ENPRESARI ATALLU INDUSTRIALDEKO 4. EXEKUZIO UNITATEAN, ATALLU KALEA 16AN, PABILOI INDUSTRIAL BERRIA ERAIKITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

ESP. ZENB.: HZ.04/2014-0329

LASER KEN, S.A. enpresak egindako eskaera aztertu dut. Bertan, Atallu industrialdeko 4. exekuzio unitatean, Atallu kalea 16an, pabiloi industrial berria eraikitzeke udal baimena eskatzen du.

Bertan, tailer mekanizatua ezarri nahi du LASER KEN, S.A. enpresak eta horretarako dagokion jarduera espedienteaz izapidetzen ari da dagoeneko.

UR AGENTZIAREN TXOSTENA

2014ko uztailaren 22an URA Ur Agentziak, LASER KEN, S.A. enpresak Atallu industrialdeko 4. exekuzio unitatean, Atallu kalea 16an, pabiloi industrial berria eraikitzeke egitasmoaren inguruko txostena helarazi zuen. Hitzez hitz honela dio txostena:

GAIA: ORIA IBAIAREN ESKUIN ERTZEAN, USURBILGO (GIPUZKOA) UDALERRIKO ATALLU POLIGONOAN INDUSTRIAL NABE BAT ALTXATZEKO BAIMEN ESKAERA.

2014/07/09ko datarekin izan zuen sarrera Uraren Euskal Agentziaren ekialdeko kantauriar arroen (Gipuzkoa) Bulego honetan, LASER KEN, S.L.-ko Eneko Erro García jaunaren baimen eskaerak erreferentziako obrak egiteko.

Eskaera, nabe industrial berra hartuko duen partzela erakusten zuen oin plano orokor batez laguntzen zen.

Erreferentziako partzela Atalluko poligonoaren parean igarotzen den tartean. Oria ibaiaren eskuin ertzean kokatzen da, ubidetik gutxienez



Usurbilgo Udala



170 m.-ko erretiroarekin partzela ubideari gertuen den tokian. Kokapen hau dela eta, Bulego honetatik jakinarazten da erreferentziako partzela Oria ibaiaren eskuin ertzeko uren polizi gunetik kanpo aurkitzen dela eta erreferentziako obrak aurrera eramateko ez dela beharrezkoa izango Arroko Organismoak ematen duen baimena edukitzea.

Dena den, eremu horretako uholdagarritasunaren analisiak erakusten du erreferentziako partzela 500 urteko itzulera epea duten Oria ibaiaren gehienezko uholde boladetan (Q500) urazpian geratzen dela (uholde bolada 13,85 m.s.n.m.-eko kotara - REDNAP2008- heltzen da), partzelaren hegoaldeko alderdiak Lehentasunezko Fluxu Eremuarekin muga egiten duela eta, ARPSI ES018-GIP-16-Oria Behea, Uholdagarritasun Arrisku Potentzial Esanguratsudun Eremuaren barne aurkitzen dela.

Guzti hau dela eta. Bulego honetatik jakinarazten da aurreikusten den nabe industrialak hurrengo baldintza hauek bete beharko dituela:

1. Ekintzek ezingo dute inguruko eremuen uholdagarritasuna kaltetu,
2. Pabilioi berriaren lurzorua Oria ibaiaren Q500 uholde boladarengatik uholdagarria ez den kotan ezarri beharko da,
3. gune hauek, modu orokorrean, ez dela garaje edo sotorik baimentzen, itxitura estankoeekin eta uholde boladak harrapatutako kotatik gora dauden arnasbideekin hornitu eta sárrerak arranpa edo eskailera mailekin iragazgaitz egiten ez diren heinean behintzat,
4. Eskatzaileak, gainera, espresuki adierazi beharko du toki horretako uholdagarritasun egoera ezagutzen duela eta kasu horretara aplikatu litezkeen Babes Zibileko neurrien berri baduela, hauek onartuz, bere babeserako onuragarri deritzon neurriak hartzeaz gain.
5. Bai eraikitze lanak iraun bitartean, bai behin nabe berria eraiki denean, uholdagarri den aipatutako partzelan edonolako materiale edo soberakinen pilaketak egitea debekatuta dago, bereziki Ur Jabari Publikoaren kutsadura edo degradazioa eragin ahal dezaketenean edo flotatuz edo arrastan eramanda drainatze obren 'eta zubietan oztopoa eragin dezaketenean, hustubide sezkoak gutxiagotuz,
6. Txosten honek ez du nabe berritik eratorritako isurketak egiteko baimenik ematen. Eraikin berritik eratorritako isurketak dagozkion isurketa baimena lortu beharko dute.

Donostian, 2014ko uztailaren 16an

TXOSTEN TEKNIKOA

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Joxean Erasan Aranconek, ondoko txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate andreari
OBRA HAUNDIAK



Usurbilgo Udala



ATALLUKO 4. EXEKUZIO UNITATEAN ERAIKIN INDUSTRIALA ERAIKITZEKO BAIMEN ESKAERARI TXOSTENA

KOKAPENA: 4. Exekuzio Unitatea. Atallu Industrialdea. Usurbil
ESKAERA DATA; 2014ko urriaren 16a.
ESKATZAILEA; LASER KEN S.A. enpresa.
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2014-0329
AURREKONTUA: 942.150,03 € (PEM)

AURREKARIAK

- 2014ko urriaren 16an Juan Amado Rodriguez jaunak LASER KEN S.A.-ren izenean Atalluko 4. exekuzio unitatean tailer mekanizatua ezartzeko Exekuzio Proiektua aurkeztu du dagokion baimena eskatzeko.

Erlazionatuak:

HZ13/2014-0250 Hirigintza kontsulta

- 2014ko ekainaren 5ean Enrique Erro García aparejadoreak hirigintza kontsulta egin zuen Usurbilgo Udalean A-104 ATALLU eremuko 4. lursailean egikaritu daitekeen gehienezko altueraren inguruan.

HZ.07/2014-0383 Jarduera Sailkatua

- 2014ko irailaren 9an LASER KEN S.A.-ren izenean Atalluko 4. lursailean tailer mekanizatua ezartzeko Jarduera Proiektua aurkeztu zen.

TXOSTENA

LASER KEN S.A. enpresaren izenean Usurbilgo Atallu industrialdean, 4. Exekuzio Unitatean industri pabiloia eraikitze baimena eskatu da, Exekuzio Proiektua aurkeztearekin batera. Aurkeztutako dokumentazioa honako hau da: eskaera orria eta Exekuzio Proiektua (injenieri teknikoak izenpetua eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsia 2014-10-15). Proiektuak, era berean, honakoak barneratzen ditu: Memoria eta Eranskinak (EKTaren justifikazioa), Azterlan Geoteknikoa, Hondakinen Kudeaketarako Azterlana, Planoak, Segurtasun eta Osasun Azterlana, Kalitatearen Kontrolerako Plana, Baldintza Plegua, Aurrekontua, Instalazio Elektriokoaren Proiektua eta URA ur agentziaren txostena.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta gero, honakoa esan daiteke:

- **HIRIGINTZA ARAUDIAREN BETETZEA:** Eraiki nahi den pabiloiaren kokapena, Usurbilgo Plangintzako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspenaren Testu Bateginaren arabera (GAO 2013-09-10), hiri lurzoruan kokatzen da, hain zuzen, A-104 ATALLU eremuan. Dagokion hirigintza fitxak honakoa ezartzen du, bestek beste:



Usurbilgo Udala



3. ERABILERA:

Solairuan okupaturiko azaleraren %50 gaindituko ez duen tarteko solairua eraiki ahal izango da, bulego, komun edo antzeko erabileretako.

(...)

5. ERAIKUNTZAREN BALDINTZAK:

Eraikuntzen baldintzka behin betiko onartutako Plan Partzialak ezarritakoak izango dira.

Gehiengo altuera eraikigarria, 9 m. Altuera handiagoa beharrezkoa balitz, ekoizpen sistemagatik justifikatuz izango da.

Bestetik, Atallu eremuko Plan Partzialak, Ordenantzen 14. artikuluan honakoa finkatzen du:

“ARTÍCULO 14. Condiciones de la Edificación.

(...)

2. Altura máxima.

La altura máxima de la edificación a partir de la rasante de referencia será de 9 metros.

Tan sólo se permitirá sobrepasar esta altura en aquellos elementos industriales o instalaciones, imprescindibles para el desarrollo de la actividad que precisen mayor altura, quedando a criterio del Ayuntamiento su permisibilidad.”

Eraikigarritasunari dagokionez, aurkeztutako proiektuaren arabera, pabiloiaren azalera 3000 m²-koa da, eta tarteko solairuena 349,8 m²-koa; hortaz, esan daiteke proiektua araudiarekin bat datorrela, tarteko solairuek (bulego erabilera dutenek) ez baitute inola ere azaleraren %50 gainditzen.

Eraikinaren altueraren inguruan, berriz, interesdunak aurkeztutako memorian honakoa irakur daiteke:

“La necesaria instalación de un puente grúa en sentido longitudinal, que recorra la totalidad del pabellón, nos obliga a dejar una altura libre entre el suelo y el mismo de 5.50 m a la parte baja de su viga soporte. A esto, le sumamos el canto de las vigas que forman la cubierta, según datos facilitados por la empresa de estructuras prefabricadas PRECON. En total nos da una altura a parte alta de peto de fachada de 11.53 m, según plano de sección que se adjunta.”

Aplikagarria den araudiak dioena kontuan izanik, proiektuak aurreikusitako altuera ontzat eman daiteke.

- **UR AGENTZIAREN BAIMENA:** Aurkeztu da. Bertan eraikin berria baimentzea proposatzen da, txostenean zehazten diren baldintzak betetzekotan.
- **EKT-REN BETETZEA:** Aurkeztu da.



Usurbilgo Udala



- **SUTEAREN AURKAKO BABESA:** Aurkeztu da._
- **IRISGARRITASUN ARAUDIAREN BETETZEA:** Irisgarritasunaren sustapenerako 20/1997 Legea eta ingurune hiritar eta eraikinetako arau teknikoari buruzko 68/2000 Dekretua bete behar dira industri eraikinetan.

Araudiaren arabera, industri erabilerarako eraikin edo instalazioek, jendeari zabalduetako eremuetan, onarpen eskubidea erreserbatuta izanik ere, bide publikorako irisgarritasuna eskainiko dute eta jendeari erantzuteko eremu bat izango dute, bai eta gurgil-aulkia erabiltzen duten pertsonentzako irisgarritasuna izango duen komun bat ere.

Bezeroen harrera aintzat hartu ez den arren (lan hori beste bulego batzuetan egiten da), proiektuaren memoriak dioenez, bulegoek bi sarrera dituzte: bata, oinezkoentzat, kaletik; eta bestea, ekoizpen gunetik sartzekoa (ibilbide irisgarria baimentzen duena).
- **LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA:** Gogorarazten da, obren egikaritzan zehar lurzoru publikoa okupatzerik behar bada, dagokion baimena lortu beharko dela.
- **ZERBITZUETAKO TXOSTENA:** Zerbitzu eta azpiegiturei dagokionean, Zerbitzuetako Saileko txostenean jasotako baldintzak bete beharko dira.
- **JARDUERA BAIMENA ETA JARDUERA EZARTZEA:** Ezinbestean jarduera baimena lortu beharko da bertan erabilera industrialia ezartzeko.
- **HONDAKINEN KUDEAKETARAKO ARAUDIA:** Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 18.605,77 €-koa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (22.236,92 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Oro har, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

ONDORIOAK

Goian esandakoari jarraiki, ALDEKO txostena idazten zaio Atallu industrialdeko 4. Exekuzio Unitatean pabiloia eraikitzeko eskaerari, honako baldintzekin:

- Eraikinak EKT eta suteen babeserako araudia bete beharko du ezinbestean.
- Azpiegiturei dagokienez, udal aparejadoreak bere txostenean ezarritakoak bete beharko dira.



Usurbilgo Udala



- Ezinbestean, jarduera baimena lortu beharko da eraikinean erabileraren bat ezartzeko.
- Obrak hasi aurretik dagokion udal zerga ordaindu beharko da.
- Obrak hasi aurretik ZUINKETA AKTA izenpetu beharko da.
- Behin obrak amaituta, lehen erabilerarako baimena eskatu beharko da, eta horretarako, indarrean dauden arau subsidiarioen 31. artikulua ezarritakoaren arabera, beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK;
 1. Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 2. Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 3. Obraren egikaritze epe gehiengoa: urte 1.
- Obra amaitu ostean, Lehen erabilera baimena lortzeko ezinbestekoa izango da, besteren artean, baldintza hauek espreski betetzen direla aitortzen den ziurtagiria aurkeztea, Obra Zuzendaritzak izenpetua eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia.

Jarduerari lotutako irekiera baimenari dagokionez, jakinarazten da obra lanak egiteko baimenak ez duela Administrazioa lotesten eta, obra lanen exekuzioaren ondorioz, sor edo sortaraz litezkeen kalte eta galerak ez direla izango indemnitazio gai, irekiera baimena emango ez balitz edo egindako obra lanak eraldatzeko betebeharrak neurri zuzentzaileak ezarriko balira.

Hori da esan behar nuena.

Usurbilen, 2014ko azaroaren 28an
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Joxean Erasun Arancón

Udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, 2014ko abenduaren 10ean, Exekuzio Proiektua aztertu ostean, dagokion txostena eman du bete beharreko baldintzak zerrendatuz.

Gauzak horrela, URA ur agentziaren txostena, eta udal arkitektoaren eta udal aparejadorearen txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: LASER KEN, S.A. enpresari Atallu industrialdeko 4. exekuzio unitatean, Atallu kalea 16an, pabiloi industrial berria eraikitzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Juan Amaro Rodriguez ingeniari tekniko industrialak 2014ko urrian idatzitako Exekuzio Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko



Usurbilgo Udala



diren eta udal teknikariek bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.

- Obrak hasi aurretik, obrei hasiera ofiziala emateko **ZUINKETA AKTA** izenpetu beharko da udal aparejadorearekin.
- URA ur agentzian ezarritako baldintzak beteko dira:
 - Ekintzek ezingo dute inguruko eremuen uholdagarritasuna kaltetu,
 - Pabilioi berriaren lurzorua Oria ibaiaren Q500 uholde boladarengatik uholdagarria ez den kotan ezarri beharko da,
 - gune hauetan, modu orokorrean, ez dela garaje edo sotorik baimentzen, itxitura estankoeekin eta uholde boladak harrapatutako kotatik gora dauden arnasbideekin hornitu eta sarrerak arranja edo eskailera mailekin iragazgaitz egiten ez diren heinean behintzat,
 - Eskatzaileak, gainera, espresuki adierazi beharko du toki horretako uholdagarritasun egoera ezagutzen duela eta kasu horretara aplikatu litezkeen Babes Zibileko neurrien berri baduela, hauek onartuz, bere babeserako onuragarri deritzon neurriak hartzeaz gain.
 - Bai eraikitze lanak iraun bitartean, bai behin nabe berria eraiki denean, uholdagarrai den aipatutako partzelan edonolako materiale edo soberakinen pilaketak egitea debekatuta dago, bereziki Ur Jabari Publikoaren kutsadura edo degradazioa eragin ahal dezaketenean edo flotatuz edo arrastan eramanda drainatze obren 'eta zubietan oztipoa eragin dezaketenean, hustubide sezkieak gutxiagotuz,
 - Txosten honek ez du nabe berritik eratorritako isurketak egiteko baimenik ematen. Eraikin berritik eratorritako isurketak dagozkion isurketa baimena lortu beharko dute.

- ZERBITZUETAKO TXOSTENA; Zerbitzu eta azpiegiturei dagokionean, udal aparejadorearen txostenean bildutako baldintzak bete beharko dira ezinbestean:

SANEAMENDUA

- *Ur zikinak eta euri urak urbanizazioan eraikita dauden kutxetara bideratuko dira. Ez dira kutxeta berriak eraikiko. Eremu publikoan instalatzen diren euri-uren eta ur-zikinen hodian gutxienezko diametro 315 mm izango da.*
- *Hodia PVC zurruna motatakoa izango da.*
- *Kutxeta tapak berritu behar badira, Fundibide etxeak izango dira eta Usurbilgo armarrria eramango dute. Kutxeta tapen testua: Euri urak - Usurbilgo Udala ,Ur zikinak - Usurbilgo Udala.*

HERRIKO ARGIAK



Usurbilgo Udala



- *Aurrekontuko 19.07 eta 19.08 ataletan aipatzen da, herriko argien zutabe bat tokiz aldatuko dela. Herriko argien instalazio elektrikoan edozein aldaketa egin baino lehen, zutabea aldatzeko baimena eskatuko da, eta informazio grafikoa eta txostena aurkeztuko dira. Aldaketak udalaren baimena jaso beharko du.*

UR EDANGARRIA

- *1.-Hartuneak eta instalazioa burutuko dira, ur horniketako CTE-DB-HS4 oinarrizko arauen arabera, udal zerbitzu teknikoen adieraziko duten tokian.*
- *2.-Aquarius markako kontagailuak gehienez 1" batekoa izango da, eta irakurketa moduluak instalatuko dira.*
- *3.-Ebaketako giltzak jarriko dira kontagailuen aurretik eta atzetik.*
- *4.-Itzultze aurkako balbula instalatuko da.*
- *5.-Kontagailua, pabilioiaren aurrealdean jarriko da, Pan Inter kutxatila baten barruan, udal zerbitzu teknikoek adieraziko duten tokian.*
- *6.-Ura hartu baino lehen, instaladoreak prestatu eta Industria sailak onartu eta zibilaturiko "edateko uraren instalazioaren ziurtagiria" aurkeztuko da.*
- *7.-Sare nagusian ura kendu gabe egingo da hartunea*
- *8.-Instalatuko diren hodiak, gaur egun dauden hodian azpitik pasako dira. (Saneamendua, ur sarea, herriko argi sarea, etab.en azpitik hain zuzen.)*
- *9.-Obra hasi aurretik, egungo instalazioen kokapena zehaztuko da. Udal instalakuntzak Udal zerbitzu teknikoen bidez eta beste instalazioak dagokion enpresa hornitzaileen bidez.*
- *10.- Hondatzen diren materialak birjarriko dira.*
- Ezinbestean jarduera baimena lortu beharko da bertan erabilera industrialia ezartzeko.
- Ezinbestean bete beharko dira bai eraikinean eta baita obren egikaritzan ere EKT-k ezarritako neurriak eta suteen babeserako araudia.
- Ezinbestean Irisgarritasun Araudiak (1997ko Legea eta 68/2000 Dekretua) bete beharko da.
- AASS-etako Egoitzazko Eraikuntzen Ordenantzak bete beharko dira.
- Obra burutzeko zoru publikoan aldarmioak edo kontainerra jarri behar izanez gero, udal baimena eskatuko da horretarako prestatuta dagoen inprimakia erabiliz. Hartuko den azalera eta, hasierako eta bukaerako egunak zehaztuko dira.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - a. Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.



Usurbilgo Udala



- b. Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - c. Obraren egikaritzea epe gehiengoa: urte 1.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 1. Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.
 2. Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Horrekin batera CTE betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigilaturik eta Kolegioan bisaturik.
 3. Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.
1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren plana ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.
 4. Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 cm. takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datoze adieraziz.
 5. Obralanean Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.
 6. Lurralde kontribuzioaren alta.
 7. Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik elektrindarraren hornikuntza sareko loturako buletinaren eta kasua balitz, gas metaketa eta banakuntzarako instalazioari dagokion egokitasun egiaztagiriaren kopia. Era berean, ur hornikuntzaren Industria Delegazioak izenpeturiko buletina aurkeztuko da.
 - Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.



Usurbilgo Udala



BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 18.605,77 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (22.236,92 € euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

22.236,92 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "Fidantza: HZ.04/2013-0329" jarriaz kontzeptuan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

4.- LASER KEN, S.A. ENPRESARI, ATALLU INDUSTRIALDEKO 4. EXEKUZIO UNITATEAN, ATALLU KALEA 16AN, TAILER MEKANIZATUA EZARTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.07/2014-0383

LASER KEN, S.A. enpresak egindako eskaera aztertu dut. Bertan, Atallu industrialdeko 4. exekuzio unitatean, Atallu kalea 16an, tailer mekanizatua ezartzeko udal baimena eskatzen du.

ESPEDIENTE ZKIA: HZ.07/2014-0383

ESKATZAILEA: LASER KEN, S.A.

JARDUERA MOTA: Tailer mekanizatua

NON KOKATUA: Atallu industrialdeko 4. exekuzio unitatea

Espedientea jendaurrean jarri zen (GAO, 177. zenbakia, 2014ko irailaren 18). Jendaurreko epealdian ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak berriz, 2014ko urriaren 3an helarazi zigun ALDEKO osasun-txostena 3336 sarrera zenbakia daraman idatziarekin batera.

Tokiko Gobernu Batzarrak ere, 2014ko urriaren 14ean aldeko informea eman zuen.

Ondoren, Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/98 Euskadiko Lege Orokorrak aurreikusten duen moduan, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak aipatu jarduera sailkatu eta dagozkion neurri zuzentzaileak ezarri zituen.

Guzti hau kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA



Usurbilgo Udala



LEHENA: LASER KEN, S.A. enpresari, Atallu industrialdeko 4. exekuzio unitatean, Atallu kalea 16an, tailer mekanizatua ezartzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Aldeko Egiaztapen Akta lortu arte, inolaz ere jarduerarik ez da legeztatuko.
- Akta hori eskuratzeko, eskatzaileak aldeztu aurretik Udalari eskatu beharko dio Egiaztapen hori burutzea. Eskaerarekin batera aurkeztuko da, Obra eta -instalazioetako Zuzendari Teknikoak egindako Ziurtapena, non zehaztuko baita aipatu instalakuntza eta obrak emandako baimenaren arabera eraiki direla. Era berean industria sailak luzatutako baimena aurkeztuko da. Baita jarduera proiektuaren beste ale bat ere.
- Baldin eta aipatu egiaztapenerako eskaera aurkeztu baino lehen, makina edo instalakuntzen funtzionamendua egiaztatzeko frogaren batzuk egin behar balira, titularrak bost egun aurretik Alkateari adierazi beharko dio, froga horren iraupena zehaztuz eta ingurua, pertsonak eta ondasunak arriskuan ez direla jarriko garantizatuz; froga horiek egiterakoan Udaletxeko Teknikoek bertaratzerik izango dute.

BIGARRENA: Aurkeztutako Proiektuari egokiturik egingo dira obra eta instalazioak, beti ere, jarraian aipatuko diren baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.

HIRUGARRENA: Neurri Zuzentzaileak. Jarduerak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak ezarritako ondoko neurri zuzentzaileak bete beharko ditu.

1. Erakunde Tekniko aginpidedunek oro har aplikatzeko ematen dituzten berriarazo arauak bete behar dira.
2. Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legeak ezarritako lurzorua kutsa dezaketen jardueren titularren eginbeharrak betearazi beharko ditu sustatzaileak, bereziki jarduera edo instalazioa bukatu edo ixten denean lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpen-prozedura hasteari dagokionean.

Ingurumeneko Sailburuordearen, apirilaren 25eko, 1/2013 instrukzio teknikoko hirugarren interpretazio-irizpidean deskribatutako zirkunstantziak ematen direnean (jarduera bukatu edo ixten denean), sustatzaileak erantzukizunez horrela adierazten duenean eta ingurumen organoaren aldeko iritzia existitzen denean, ez da galdagarria izango lurzoruaren kalitatearen prozedurari haserá ematea.

3. Lurren mugimenduak burutzea ekarriko duten obrei ekin ezker, jardueraren titularrak induskatuko diren materialak (lurrak, obra-hondakinak etab.) karakterizatu beharko ditu jarduera kutsatzailearen baten eragina izan duten egiaztatzeko xedez eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, hauek kudeatzeko bide egokiena ezarri.



Usurbilgo Udala



Aurreko atalean adierazitako karakterizazio horretan lorturiko emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko dira berauen baloraziorako, eta hori kudeaketa egin aurretik.

Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen 10. artikulua dioenez, lurzorua kutsatuta dagoela adierazten duen zantzurik antzematen bada, egoera horren berri berehala eman behar zaie Udaletxeari eta Ingurumen Sailburuordetzari, horiek hartu beharreko neurriak zehaztu ditzaten.

4. Urtarrilaren 14ko, 9/2005 Errege Dekretuko, 3. artikulua betetzeko sustatzaileak lurzoruaren egoerari buruzko aurretizko txostena aurkeztu beharko du Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzari. Txosten hori Sailburuordetzaren webgunean eskuragarri dagoen prozeduraren arabera landu beharko da. Sustatzaileak justifikatu egin beharko du Udalean izapidetze hau egin izana.
5. Pabiloiaren zorua egon daitezkeen isurketa posibleekiko iragazgaitza izan beharko da.
6. Jarduera pabiloiaren barman burutuko da beti eta zaratak ahalik eta gehien murrizteko eran. Sarbideak zirkulazioa ahalbidetzeko beharrezkoa den denbora tarte motzenez egongo dira irekita soilik.
7. Zarata kutsadura saihesteko neurriak jarriko dira martxan, eragin akustiko txikiagoa duten teknologiak aplikatuta, kontuan izaki Eskuragarri dauden Teknikarik Onenak, hau da, teknikoki eta ekonomikoki bideragarri diren eta kutsadura gutxien sortzen duten teknologiak, eta aintzat harturik zarataren igorlearen ezaugarriak. Jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko, urriaren 16ko, 213/2012 Dekretuko 51. artikuluan aipatutako zarata-foku berriei aplikatzeko muga-balioak beteko dira eta bat datorren gainontzeko araudikoak.
8. Dardarak aldameneko nabe eta lokalen egiturei transmititzea ekiditeko, beharrezkoa den makinerian dardaren aurkako elementu egokiak ezarriko dira.
9. Jarduerak sor dezakeen kutsadura atmosferikoa murrizteko eta auzokideak gogaitu ditzakeen usainik ez sortzeko, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu titularrak instalazioen diseinuari eta ustiapenari dagokienez
10. Jakinarazpen izapidetzea egin behar duen atmosfera kutsa dezaketan jarduera bezala, titularrak Atmosfera kutsa dezaketan jardueretarako instalazioak arautzen dituen, abenduaren 27ko, 278/2011 Dekretuak 16. artikuluan ezarritakoa bete beharko du. Bertan jardueraren osoko edo partekako hasieraz geroztik 6 hilabeteko epea ezartzen da Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazpena egiteko. Behin



Usurbilgo Udala



jakinarazpena egin ondoren, titularrak izapide hori egin izana justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du Udalean.

11. Era berean, Jarraibide teknikoak ematen dituen Atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 278/2011 Dekretua garatzeko den, 2012ko uztailaren 1 lko, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren Agindua ezarritako baldintzak beteko dira.
12. Saneamendua banatzailea izango da eta ondo definituak eta independenteak izango diren ondoko sarea edukiko ditu:
 - Pabiloiaren estalkietako eta partzelako urak jasoko dituen poluitu gabeko euri-uren sarea.
 - Ur beltzen sarea. Bertako isuriak saneamendu-sarera konektatuko dira. Jarduerari ekin aurretik, erakunde aginpidedunek emandako saneamendu sarera Isurtzeko Baimena aurkeztu beharko du Udaletxean titularrak.
13. Komunetan sortutako isurketa likidoak baino ez dira egongo.
14. Sortutako hondakinak, Hondakinen eta kutsatutako lurzoruen, uztailaren 28ko, 22/2011 Legean ezarritakoaren arabera kudeatuko dira udal-araudiaren kalterik gabe.
15. Espreski debekatuta geratzen da sortutako hondakin tipologia desberdinak nahastea, nahiz arriskutsuak zein ez arriskutsuak izan. Hondakinak jatorrian banatuko dira eta aipatutako nahasketak ekiditearren hondakinak jasotzeko eta biltegitatzeko baliabide egokiak eduki beharko dira.
16. Hondakinen sorkuntza ahal den heinean murriztu beharko da edo, bere kasuan, uztailaren 28ko, 22/2011 Legeko 8 artikuluan ezarritako hierarkiak adierazitako lehentasunaren ordenarekin kudeatuko dira hondakin horiek, hau da: prebentzioa, berrerabilpenerako prestaketa, birziklapena eta beste balorizazio mota batzuk, balorizazio energetikoa barre. Arrazoi tekniko edo ekonomikoengatik aipaturiko prozedurak aplikatu ezin badira, ingurumenaren gaineko eragina ekidin edo ahal bezain beste murrizteko eran eliminatuko dira.
17. Sortutako hondakin ez arriskutsuei buruz (plastiko, paper, kartoi, egur, beira hondakinak, %3tik beherako olio eta koipe edukia duten hondakin metalikoak etab.), hondakinak lehen aldiz kudeaketainstalazio batera eraman aurretik jardueraren titularrak hondakin ez arriskutsuen adierazpena egin beharko du. Horretarako hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzeko, otsailaren 24ko, 49/2009 Dekretuko VI. eranskinean agertzen den inprimakia erabili beharko du.



Usurbilgo Udala



18. Aluminio hautsak, olioen hondakinak, hozgarriak, konpresoreko purgetako urak eta orokorrean arriskutsu kontsideratutako gai/prestakinen hondakinak sortzekotan, horiek gorde dituzten ontziak, kutsatutako hondakin metalikoak, iragazkiak, xurgatzaileak, trapuak eta kotoiak, eta hodi fluoreszenteak, merkuriozko lanparak etab. deuseztatu nahi izatekotan, dagozkien baldintzak betez jasoko dira, hau da, Hondakinen eta kutsatutako lurzoruen, uztailaren 28ko, 22/2011 Legeak, Tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzko, otsailaren 25eko, 208/2005 Errege Dekretuak eta hondakin arriskutsuei buruzko gainerako araudian ezarritakoa jarraituz. Hondakin arriskutsu horiek biltegitratuta dauden denboran behar bezala etiketatuta egongo dira, teiltapean eta zoru iragazgaitzaren gainean eta egon daitezkeen isurketa akzidentalak atxikitze sistema bat edukiko dute.
19. Aipatutako uztailaren 28ko, 22/2011 Legeko 29. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta izaera sektorialeko gainontzeko araudiak ezarritakoaren kalterik gabe, hondakinen sortzaile aurre-komunikazioa aurkeztu beharko da jarduera abian jarri aurretik Ingurumen Sailburuordetzan. Komunikazio honen edukia Legearen VIII eranskinean aipatutakoa izango da.
20. Aurkezten dituen ezaugarri kimikoengatik urak edo lurzorua eraldatu edo kutsatzeko gai den edozein materialen biltegitratzea euren arteko bateraezintasuna kontuan izanik egingo da. Material horiei iragazgaitz, erresistente eta eraldaezen izango den lurzoru gainean biltegitratuko da, aterpean, eta isurketa akzidentalak atxikitze sistema bat edukiko du.

Isurketa baten ondoren atxikitze sistema berehala hustuko da eta isuritako likidoa leku egokian biltegitratuko da berriro.

Haizea, uholdeak, euria edo ibilgailuen joan-etorrien ondorioz produktuak biltegi gunetik kanpora arrastatzea edo isurtzea ekiditeko beharrezko neurriak hartuko dira.
21. Likido kutsakorren isuriak sor ditzaketen makineria eta instalazioek likido horien atxikipenerako sistema estanko bat eduki beharko dute eta hauen ekintza fisiko eta kimikoari eutsi. Sistemaren bolumena atxikiko dituen likidoek gainezka egitea ekiditeko adinakoa izango da. Kubetoan atxikitako isurketak sortzen direnean jasoko dira, eta aurreko neurrian deskribatutako baldintzetan biltegitratuko dira kudeatzaileak jaso arte, horrela kubetoa uneoro hutsik eta funtzional egon dadin.
22. Garbiketa, konponketa eta instalazioen bestelako mantenu lanak, hondakinen, isurketen edo emisioen sorrera murrizteko eran burutuko dira.



Usurbilgo Udala



23. Titularrak berehala informatu beharko dio Administrazioari kanpoko ingurunea kutsa dezakeen istripu edo jazoerarik ematen bada.
24. Erabilitako olioien eta arriskutsu kontsideratutako edozein sustantziaren isurketa akzidentalak biltzeko egokia izango den material xurgatzailea eduki beharko da.
25. Suteen aurkako neurriek erakunde eskudunak ezarritakoa jarraituko dute.
26. Proiektuan jasotzen diren zehaztapen eta neurri zuzentzaileak derrigorrez bete beharko dira, beti ere aurrez aipatutako neurrien aurka ez doazenean.
27. Txosten honetan ezarritako neurri zuzentzaileak aurkeztutako proiektuari buruzkoak dira, jardueraren funtsezko edozein zabalkunde edo aldaketa izapidetu egin beharko da, horretarako Udalean dagokion izapidetzea egin beharko delarik, dagokion lizentzia lortu xedez.
28. Txosten hau eta honen ondoren udaleko sailkatutako jarduera lizentzia emateak ez die amaiera jartzen sustatzaileak aintzat hartu behar dituen ingurumen arloko eginbeharrei. Horrela honek, bere jarduera funtzionamenduan mantentzen den denboran zehar, hasieran baimendutako jarduera egokitu egin beharko dio indarrean sartzen doan, eta aplikaziokoa zaion, araudi berriari.

LAUGARRENA: Aldez aurretik ondorengo Udal zerga ordainduko da:

1. Obra eta Instalazioen zerga
2. Argitalpenak

BOSGARRENA: Obra amaitutakoan, ekoizleak eraikuntza eta eraispent-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dizkio Udalari.

SEIGARRENA: Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.

ZAZPIGARRENA: Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:

- Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra
- Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko
- Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberrako segurtasun neurriak beteko dira.



Usurbilgo Udala



- Baimen hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

ZORTZIGARRENA: Jardueraren errotulazioa euskaraz jarriko da, udal honek Euskararen erabilera normalizatzeko onartuta daukan udal ordenantzaren arabera; hala eskatuko balitz, udal honek horretarako beharrezko laguntza teknikoa eskainiko du.

BEDERATZIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

5.- GURE AMETSA ETXEKO JABEKIDEEN ORDEZKARITZAN DIHARDUEN SILVIA LUIS ARBIZU ANDREARI, KALEZARKO GURE AMETSA ETXEAN EZARRITAKO IGOGAILUARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2013-0134

Kalezarko GURE AMETSA ETXEKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen SILVIA LUIS ARBIZU andreak, Kalezarko Gure Ametsa etxean (Kalezar 2) ezarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu du.

Eskaera aztertu ostean, udal. arkitektoak, Joxean Erasun Arancónnek, ondoko txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
OBRA HANDIAK
GURE AMETSA ETXEKO IGOGAILUAREN LEHEN
ERABILERARAKO BAIMEN ESKAERARI TXOSTENA

KOKAPENA: Kalezahar, 2. Usurbil
ESKAERA DATA; 2014ko azaroaren 11
ESKATZAILEA; Gure Ametsa etxeke jabekideak
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2013-0134
AURREKON TUA: 58.142,12 €

AURREKARIAK

- 2013ko martxoaren 22an Gure Ametsa etxeke jabekideek obra baimen eskaera aurkeztu zuten, Gure Ametsa etxean igogailua jartzeko.
- 2103ko apirilaren 30ean udal arkitektoak aldeko txostena egin zuen, honako baldintzekin:
 - o Igogailuak behe solairuari eta etxebizitzak kokatzen diren solairu guztiei eman beharko die zerbitzua.
 - o Igogailuaren kabinak gutxienako 1,2 m x 0,9 m-ko neurriak bete beharko ditu eta ateeke ezingo dute 0,8 m baino pasarte estuagorik utzi.



Usurbilgo Udala



- Egungo eskailera tramuak ezingo dira 0,9 m baino neurri estuagora egokitu.
- Ohartarazten da, aipatu gutxieneakoak eta irisgarritasun araudiak ezarritako gutxieneakoak betetzea posible ez bada, proiektuaren aldaketa aurkeztu beharko da. Ez da gutxieneakoak betetzen ez dituen obrarik onartuko.
- Komunikazioa nukleoaren solairu bakoitzean suteen babeserako extintorea ezarri beharko da, segurtasun baldintza bezala, neurrien gutxieneakoa berdintzeko.
- DB-SUAK ezarritakoari jarraituz, eskubaranda jarri beharko da.
- Behin ordezkapena egin ostean, erabileran jarri aurretik, Eusko Jaurlaritzako Industri Sailaren onikusia lortu eta beronen ziurtagiria aurkeztu beharko da Udalean.
- Ezinbestean bete beharko dira indarrean diren EKT eta gainontzeko arauak.
- Ezinbestean bete beharko da soinuaren inguruan indarrean dagoen araudia; zehazki 37/2003 Hotsaren Legea eta hura garatzen duen 1367/2007 dekretua. Etxebizitza barnetan ezingo dira finkatutako soinu baremo gehiengoak gainditu eta aipatu araudiak betetzen direla justifikatu eta bermatu beharko da, beharrezkoa balitz horretarako neurri gehigarriak hartuz.
- 2014ko uztailaren 30ean jabekideek igogailuaren lehen erabilerarako baimen eskaera egin zuten, eta honako dokumentuak aurkeztu: obra amaieraren ziurtagiria (dagokion elkargoak ikus- onetsia), argazkiak eta obraren kitapena.
- 2014ko azaroaren 20an igogailuaren abiaraztearen jakinarazpena igorri du Eusko Jaurlaritzak.

TXOSTENA

Espedientea aztertu eta lanen ikuskapena egin eta gero, honakoa esan daiteke:

- Obrak amaituta daude, eta igogailua martxan.
- Igogailuak etxebizitzaren solairu guztietara bermatzen du irisgarritasuna.
- Kabinak gutxieneako neurriak betetzen ditu.
- Komunikazio-nukleoaren solairuek suteen babeserako extintore bana dute.
- Proiektuan aurreikusi bezala, eskubaranda ere jarria da.
- Dokumentazioari dagokionez, aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu dira.

ONDORIOAK

Gauzatutako obra lizentzia-eskaerarekin aurkeztutako proiektuarekin bat datorrenez, lehen erabilerarako baimen eskaerari baieztoko erantzuna ematea proposatzen dut.

Hau da esan behar nuena.

Usurbilen, 2014ko azaroaren 24an.
UDAL ARKITEKTOA



Usubilgo Udala



Izta.: Joxean Erasun Arancón

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: GURE AMETSA ETXEKO JABEKIDEEN ordezkartzan diharduen SILVIA LUIS ARBIZU andereari, Kalezarko Gure Ametsa etxean (Kalezar 2) ezarritako igogailuari lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

6.- IVAN PEREZ UBRIZ JAUNAK, BORDABERRI KALEA 3 BEHEAN EZARRITAKO ARGAZKI ESTUDIOARI IREKITZEKO BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.07/2013-0087

IVAN PEREZ UBRIZ jaunak egindako eskaera aztertu da. Bertan, Bordaberri kalea 3 behean ezarritako argazki estudioa irekitzeko udal baimena eskatu du.

Udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, dagokion ikuskapen-bisitaldia egin ostean, ondoko txostena erran du:

**ESKAERA: DENDA EZARTZEKO BAIMENA
JARDUERA: ARGAZKI ESTUDIOA
ESKATZAILEA: IVAN PEREZ UBRIZ
KOKAPENA: BORDABERRI KALEA, 3 – 2
LURZORU SAILKAPENA: HIRI LURZORUA
ESP. ZENB.: HZ.07/2013-0087**

AURREKARIAK

Bordaberri kalea 3. lokalean elektrizitateko instalazioa egokitzeko eta argazki estudioa ezartzeko udal baimena eskatzen du Ivan Perez Ubrizek. Eskaerarekin batera Inaxio Mujika Alonso arkitekto teknikoak sinatutako proiektua eta Gipuzkoako aparejadoreen elkargoaren zigilua daraman proiektua, eta Jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioa aurkezten zituen.

2013ko martxoaren 25ean alkateak jakinerazpena bidali- zuen dokumentazio osagarria eskatuz.

TXOSTENA

Bordaberri kalea 3. lokalean elektrizitateko instalazioa egokitzeko eta argazki estudioa ezartzeko, eskatutako dokumentazio eta neurri zuzentzaileak bete dituela adierazten du Ivan Perez Ubrizek.



Usurbilgo Udala



Jarduerari ezarritako neurri zuzentzaileak eta baldintzak osatu dituzenez, eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu duenez oniritzia ematen da jarduerari.

2014ko azaroaren 26an
Udal aparejadorea
Felix Aizpurua Arzallus

Eskaria kontutan hartuz eta udal aparejadorearen txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: IVAN PEREZ UBRIZ jaunak, Bordaberri kalea 3 behean ezarritako argazki estudioari irekitzeko baimena ematea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

7.- JON ANDER LOIDI LEUNDA JAUNARI, UGALDEA INDUSTRIALDEA 9, 1. PABILOIAN BOX USURBIL IBILGAILUAK KONPONTZEKO TAILERRA EZARTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.07/2014-0355

JON ANDER LOIDI LEUNDA jaunak egindako eskaera aztertu dut. Bertan, Ugaldea industrialdea 9, 1. pabiloian BOX USURBIL ibilgailua konpontzeko tailerra ezartzeko udal baimena eskatzen du.

ESPEDIENTE ZKIA: HZ.07/2014-0355
ESKATZAILEA: JON ANDER LOIDI LEUNDA
JARDUERA MOTA: BOX USURBIL ibilgailua konpontzeko tailerra
NON KOKATUA: Ugaldea industrialdea 9, 1.

Espedientea jendaurrean jarri zen (GAO, 163. zenbakia, 2014ko abuztuak 29). Jendaurreko epealdian ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak berriz, 2014ko irailaren 10ean helarazi zigun ALDEKO osasun-txostena 2917 sarrera zenbakia daraman idatziarekin batera.

Tokiko Gobernu Batzarrak ere, 2014ko irailaren 30ean aldeko informea eman zuen.

Ondoren, Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/98 Euskadiko Lege Orokorrak aurreikusten duen moduan, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak aipatu jarduera sailkatu eta dagozkion neurri zuzentzaileak ezarri zituen.

Guzti hau kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala



ERABAKIA

LEHENENA: JON ANDER LOIDI LEUNDA jaunari, Ugaldea industrialdea 9, 1. pabiloian BOX USURBIL ibilgailua konpontzeko tailerra ezartzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Aldeko Egiaztapen Akta lortu arte, inolaz ere jarduerarik ez da legeztatuko.
- Akta hori eskuratzeko, eskatzaileak aldeztatik Udalari eskatu beharko dio Egiaztapen hori burutzea. Eskaerarekin batera aurkeztuko da, Obra eta -instalazioetako Zuzendari Teknikoak egindako Ziurtapena, non zehaztuko baita aipatu instalakuntza eta obrak emandako baimenaren arabera eraiki direla. Era berean industria sailak luzatutako baimena aurkeztuko da. Baita jarduera proiektuaren beste ale bat ere.
- Baldin eta aipatu egiaztapenerako eskaera aurkeztu baino lehen, makina edo instalakuntzen funtzionamendua egiaztatzeko frogaren batzuk egin behar balira, titularrak bost egun aurretik Alkateari adierazi beharko dio, froga horren iraupena zehaztuz eta ingurua, pertsonak eta ondasunak arriskuan ez direla jarriko garrantzuz; froga horiek egiterakoan Udaletxeko Teknikoek bertaratzetik izango dute.

BIGARRENA: Aurkeztutako Proiektuari egokiturik egingo dira obra eta instalazioak, beti ere, jarraian aipatuko diren baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.

HIRUGARRENA: Neurri Zuzentzaileak. Jarduerak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak ezarritako ondoko neurri zuzentzaileak bete beharko ditu.

1. Erakunde Tekniko aginpidedunek oro har aplikatzeko ematen dituzten berriazko arauak bete behar dira.
2. Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legeak ezarritako lurzorua kutsa dezaketen jardueren titularraren eginbeharrak betearazi beharko ditu sustatzaileak, bereziki jarduera edo instalazioa bukatu edo ixten denean lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpen-prozedura hasteari dagokionean.

Ingurumeneko Sailburuordearen, apirilaren 25eko, 1/2013 instrukzio teknikoko hirugarren interpretazio-irizpidean deskribatutako zirkunstantziak ematen direnean (jarduera bukatu edo ixten denean), sustatzaileak erantzukizunez horrela adierazten duenean eta ingurumen organoaren aldeko iritzia existitzen denean, ez da galdagarria izango lurzoruaren kalitatearen prozedurari hasera ematea.

3. Lurren mugimenduak burutzea ekarriko duten obrei ekin ezker, jardueraren titularrak induskatuko diren materialak (lurrak, obra-hondakinak etab.) karakterizatu beharko ditu jarduera kutsatzailearen



Usurbilgo Udala



baten eragina izan duten egiaztatzeko xedez eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, hauek kudeatzeko bide egokiena ezarri.

Aurreko atalean adierazitako karakterizazio horretan lorturiko emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko dira berauen baloraziorako, eta hori kudeaketa egin aurretik.

Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen 10. artikulua dioenez, lurzorua kutsatuta dagoela adierazten duen zantzurik antzematen bada, egoera horren berri berehala eman behar zaie Udaletxeari eta Ingurumen Sailburuordetzari, horiek hartu beharreko neurriak zehaztu ditzaten.

4. Pabiloiaren zorua egon daitezkeen isurketa posibleekiko iragazgaitza izan beharko da.
5. Jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko, urriaren 16ko, 213/2012 Dekretuko 51. artikuluan aipatutako zarata-foku berriei aplikatzeko muga-balioak bete beharko ditu (ikus 2012ko abenduaren 31ko eta 2013ko apirilaren 15eko EHAA argitaratutako hutsen zuzenketak).
6. Dardarak aldameneko nabe eta lokalen egiturei transmititzea ekiditeko, beharrezkoa den makinerian dardaren aurkako elementu egokiak ezarriko dira.
7. Jarduerak sor dezakeen kutsadura atmosferikoa murrizteko eta auzokideak gogaitu ditzakeen usainik ez sortzeko, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu titularrak instalazioen diseinuari eta ustiaperari dagokienez. Ibilgailuak motorrak itzalita egon beharko dute lokal barruan, nahitaezko aparkamendu maniobretarako eta horrela errekeritzen duten konponketarako soilik piztu ahal izango dira motorrak.
8. Jakinarazpen izapidetzea egin behar duen atmosfera kutsa dezaketen jarduera bezala, titularrak Atmosfera kutsa dezaketen jardueretarako instalazioak arautzen dituen, abenduaren 27ko, 278/2011 Dekretuak 16. artikuluan ezarritakoa bete beharko du. Bertan jardueraren osoko edo partekako hasieraz geroztik 6 hilabeteko epea ezartzen da Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazpena egiteko. Behin jakinarazpena egin ondoren, titularrak izapide hori egin izana justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du Udalean.
9. Saneamendua banatzailea izango da eta ondo definituak eta independenteak izango diren ondoko sareak edukiko ditu:
 - Pabiloiaren estalkietako eta partzelako urak jasoko dituen poluitu gabeko euri-uren sarea.



Usurbilgo Udala



- Komunetako uren sarea. Bertako isuriak saneamendu-sarera konektatuko dira.
- Garbiketetako urak. Saneamendu sarera isuriko dira arazketa tratamendu: egokia egin ondoren.

10. Aipatutako isurketak baino ez dira existituko.

11. Jarduerari ekin aurretik, titularrak kolektorera Isurtzeko Baimena, erakunde aginpidedunek emandakoa, aurkeztu beharko du Udalean.

12. Komunetan sortutako isurketa likidoak baino ez dira egongo.

13. Sortutako hondakinak, Hondakinen eta kutsatutako lurzoruen, uztailearen 28ko, 22/2011 Legean ezarri takoaren arabera kudeatuko dira udal-araudiaren kalterik gabe.

14. Espreski debekatuta geratzen da sortutako hondakin tipologia desberdinak nahastea, nahiz arriskutsuak zein ez arriskutsuak izan. Hondakinak jatorrian banatuko dira eta aipatutako nahasketak ekiditearren hondakinak jasotzeko eta biltegitartzeko baliabide egokiak eduki beharko dira.

15. Hondakinen sorkuntza ahal den heinean murriztu beharko da edo, bere kasuan, uztailearen 28ko, 22/2011 Legeko 8 artikuluan ezarritako hierarkiak adierazitako lehentasunaren ordenarekin kudeatuko dira hondakin horiek, hau da: prebentzioa, berrerabilpenerako prestaketa, birziklapena eta beste balorizazio mota batzuk, balorizazio energetikoa barne. Arrazoi tekniko edo ekonomikoengatik aipaturiko prozedurak aplikatu ezin badira, ingurumenaren gaineko eragina ekidin edo ahal bezain beste murrizteko eran eliminatuko dira.

16. Sortutako hondakin ez arriskutsuei buruz (plastikoa, papera, kartoia, egurra, beira, hondakin metalikoak etab.-en hondakin garbiak.), hondakinak lehen aldiz kudeaketa-instalazio batera eraman aurretik jardueraren titularrak hondakin ez arriskutsuen adierazpena egin beharko du. Horretarako hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzeko, otsailaren 24ko, 49/2009 Dekretuko VI. eranskinean agertzen den inprimakia erabili beharko du.

17. Olioien hondakinak, izotzaren aurkakoak, bateriak, balazta likidoak, amiantoa daukaten balazta zapatak, konpresoreko purgetako urak eta orokorrean arriskutsu kontsideratutako gai/prestakinen hondakinak sortzekotan, horiek gorde dituzten ontziak, kutsatutako iragazkiak, xurgatzaileak, trapuak eta kotoiak, eta hodi fluoreszenteak, merkuriozko lanparak etab. deuseztatu nahi izatekotan, dagozkien baldintzak betez jasoko dira, hau da, Hondakinen eta kutsatutako lurzoruen, uztailearen 28ko, 22/2011 Legeak, Tresna elektriko zein elektronikoei eta horien



Usurbilgo Udala



hondakinen kudeaketari buruzko, otsailaren 25eko, 208/2005 Errege Dekretuak eta hondakin arriskutsuei buruzko gainerako araudian ezarritakoa jarraituz. Hondakin arriskutsu horiek biltegitratuta dauden denboran behar bezala etiketatuta egongo dira, teiltatupean eta zoru iragazgaitzaren gainean eta egon daitezkeen isurketa akzidentalak atxikitzeke sistema bat edukiko dute.

18. Aipatutako uztailaren 28ko, 22/2011 Legeko 29. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta izaera sektorialeko gainontzeko araudiak ezarritakoaren kalterik, gabe, hondakinen sortzaile aurrekomunikazioa aurkeztu beharko da jarduera abian jarri aurretik Ingurumen Sailburuordetzan. Komunikazio honen edukia Legearen VIII eranskinean aipatutakoa izango da

19. Gurpilen aldaketak egiten badira, eta hondakin gisa erabiltzen ez diren pneumatikoak sortzen badira, hauek Euskal Autonomia Erkidegoan erabiltzen ez diren pneumatikoen kudeaketa arautzeko martxoaren 13ko 46/2001 Dekretuan ezarritakoarekin bat eginik kudeatuko dira.

20. Aurkezten dituen ezaugarri kimikoengatik urak edo lurzorua eraldatu edo kutsatzeko gai den edozein materialen biltegitratzea euren arteko bateraezintasuna kontuan izanik egingo da. Material horiei iragazgaitz, erresistente eta eraldaezen izango den lurzoru gainean biltegitratuko da, aterpean, eta isurketa akzidentalak atxikitzeke sistema bat edukiko du.

Isurketa baten ondoren atxikitzeke sistema berehala hustuko da eta isuritako likidoa leku egokian biltegitratuko da berriro.

Haizea, uholdeak, euria edo ibilgailuen joan-etorrien ondorioz produktuak biltegi gunetik kanpora arrastatzea edo isurtzea ekiditeko beharrezko neurriak hartuko dira.

21. Likido kutsakorren isuriak sor ditzaketen makineria eta instalazioek likido horien atxikipenerako sistema estanko bat eduki beharko dute eta hauen ekintza fisiko eta kimikoari eutsi. Sistemaren bolumena atxikiko dituen likidoek gainezka egitea ekiditeko adinakoa izango da. Kubetoan atxikitako isurketak sortzen direnean jasoko dira, eta aurreko neurrian deskribatutako baldintzetan biltegitratuko Jira kudeatzaileak jaso arte, horrela kubetoa uneoro hutsik eta funtzional egon dadin.

22. Garbiketa, konponketa eta instalazioen bestelako mantenu lanak, hondakinen, isurketen edo emisioen sorrera murrizteko eran burutuko dira.

23. Titularrak berehala informatu beharko dio Administrazioari kanpoko ingurunea kutsa dezakeen istripu edo jazoerarik ematen bada.



Usurbilgo Udala



24. Erabilitako olioien eta arriskutsu kontsideratutako edozein sustantziaren isurketa akzidentalak biltzeko egokia izango den material xurgatzailea eduki beharko da.
25. Suteen aurkako neurriek erakunde eskudunak ezarritakoa jarraituko dute.
26. Titularrak dagozkion Ekonomiaren garapen eta lehiakortasun, Sailak ematen dituen egiaztagiriak edukitzeko beharrezkoa den eskaera egin izana frogatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du Udalean.
27. Proiektuan jasotzen diren zehaztapen eta neurri zuzentzaileak derrigorrez bete beharko dira, beti ere aurrez aipatutako neurrien aurka ez doazenean.
28. Txosten honetan ezarritako neurri zuzentzaileak aurkeztutako proiektuari buruzkoak dira, jardueraren funtsezko edozein zabalkunde edo aldaketa izapidetu egin beharko da, horretarako Udalean dagokion izapidetzea egin beharko delarik, dagokion lizentzia lortu xedez.
29. Txosten hau eta honen ondoren udaleko sailkatutako jarduera lizentzia emateak ez die amaiera jartzen sustatzaileak aintzat hartu behar dituen ingurumen arloko eginbeharrei. Horrela honek, bere jarduera funtzionamenduan mantentzen den denboran zehar, hasieran baimendutako jarduera egokitu egin beharko dio indarrean sartzen doan, eta aplikaziokoa zaion, araudi berriari.

LAUGARRENA: Aldez aurretik ondorengo Udal zerga ordainduko da:

- Obra eta Instalazioen zerga
- Argitalpenak

BOSGARRENA: Obra amaitutakoan, ekoizleak eraikuntza eta eraispent-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dizkio Udalari.

SEIGARRENA: Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.

ZAZPIGARRENA: Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:

- Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra
- Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko
- Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberrako segurtasun neurriak beteko dira.



Usurbilgo Udala



- Baimen hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

ZORTZIGARRENA: Jardueraren errotulazioa euskaraz jarriko da, udal honek Euskararen erabilera normalizatzeko onartuta daukan udal ordenantzaren arabera; hala eskatuko balitz, udal honek horretarako beharrezko laguntza teknikoa eskainiko du.

BEDERATZIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

8.- EUSKAL HERRIKO ANTZERKIZALE ELKARTEAK (EHAZE) EGINDAKO ERREKLAMAZIOA ONARTZEA ETA BERRAZTERTZE HELEGITE MODUAN IZAPIDETZEA.

Espediente zenbakia: 0073

Kodea: KE 01/2014

Eskatzailea: Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak (EHAZE)

Ikusirik

2014eko otsailaren 3an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren. Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak (EHAZE) diru-laguntza eskaera egin zuen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2014ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, 2014ko kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza kopuruak behin betikoz onartu zituen. EHAZEri ekintza hauetarako 7433,70 euroko diru-laguntza izendatu zitzaion. Diru-laguntza horren barruan, 88. ekintzarako 3149,10 €

88. ekintzaren diru-laguntza zuriaketa egin ondoren, diru-laguntzaren 2. zatiaren ordainketari buruzko erabakia era honetara hartu zen:

88. 6. Topa Eszenika	3.149,10 €	2.361,83 €	Gastuak: 3.149,00 € Sarrerak: 490,00 € Guztira gastuak: 2.659,00 86. ekintzako soberakina 190,01 € Guztira 2.849,01 €	487,18 €
----------------------	------------	------------	---	----------

Interesatuari kopurua adieraztearekin batera, berraztertze errekurtsua aurkezteko hilabeteko epea eman zitzaion.

Azaroaren 20an interesatuak erreklamazio gisa 300 euroko faktura bat erantsi dio aurreko zuriaketari.

Horren arabera, zuriaketa era honetara geratuko litzateke:

88. 6. Topa Eszenika	3.149,10 €	2.361,83 €	Gastuak: 3.449,00 € Sarrerak: 490,00 € Guztira gastuak: 2.959,00	787,18 €
----------------------	------------	------------	--	----------



Usurbilgo Udala



			86. ekintzako soberakina 190,01 € Guztira 3149,01 €	
--	--	--	--	--

Horren arabera, EHAZE-ri 300 euroko ordainketa egin behar litzaioke.

Araudi aplikagarria

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- 2014an kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2014/02/03).
- Kontuhartzaileraren txostena

Hau guztia kontutan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: EHAZE-ri egin duen erreklamazioa onartzea eta berraztertze helegite moduan izapidetzea.

Bigarrena: 300 euroko ordainketa egitea.

Hirugarrena: Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da:
1.4000.481.451.10.03.2014 (A6/2014)

Laugarrena: Interesatuari akordioaren berri emango zaio.

Bosgarrena: Kontu-hartzailetzari akordioaren berri emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, Alkate andreak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 8:40ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.